



AURRERA!

81. zk.

2022ko iraila

Berrikuntza eta Teknologia Berrien dibulgaziozko aldizkaria

*Bulego Teknologikoak argitaratua***Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza****AURKIBIDEA**▲ Office365eko
zerbitzu berriak

2. or.

▲ GureSeK:
segurtasun
korporatiboa
hobetzen

6. or.

Alboan▲ EJIIEk zuzendari
nagusi berria
izendatu du

10. or.

Kontrazala▲ Googleren
bilatzaileak 25
urte bete ditu▲ Ada Byron Saria
2022, Lourdes
Verdes-
Montenegro eta
Julia Guiomar
Niso

12. or.

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren Sare Korporatiboko langile guztiek Windows10 sistema eragilea eta Office365 bulegotika-paketea dituzte instalatuta beren ordenagailu pertsonalean. Aurrera aldizkari berri honen lehen atalean («Office365eko zerbitzu berriak» izenekoan), EJIIEk laster ezarriko dituen eta Office365eko zerbitzua hobetuko duten utilitate berriak azalduko dizkizuegu.

Bigarren atalean, «GureSeK: segurtasun korporatiboa hobetzen» izenekoan, GureSeK-eko Batzorde Teknikoaren azken bileran jorratutakoaren laburpena egingo dugu. Bilera horretan, sail batzuetan oraindik zaharkituta dauden sistemek dituzten segurtasun-arriskuak azaldu ziren, baita gure ordenagailuetako Internet Explorer II laster desagertuko dela ere. Horrez gain, azaldu zen zenbait neurri ezarriko direla zibererasoak eta horien ondorioak saihesteko, ahal den neurrian. Hori guztia Sare Korporatiboko informazio-sistemen eta BATERAn ostatutako sistemen segurtasuna hobetzeko.

Karguan 9 urte eman ondoren, Alex Etxeberriak EJIIEko (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte) zuzendari nagusiaren kargua utzi du. Bere lekua «etxeko» pertsona batek hartuko du, Asier Sáez de Vicuña. «Alboan» atalean, «EJIIEk zuzendari nagusi berria izendatu du» izeneko artikulua barruan, aldaketa horren xehetasunak azalduko dizkizuegu.

Atzo izan zela dirudi, baina 25 urte igaro dira, dagoeneko. Googleren bilatzaile ospetsuak mende laurdena bete berri du. Gaur egun, pertsona askorentzat erreferentziatzeko orrialdea bihurtu da, eta Interneten zerbait bilatzeko lehen urratsa da. Sortzaileen historia eta jatorria ezagutu nahi baduzue, ez galdu prestatu dugun «Googleren bilatzaileak 25 urte bete ditu» artikulua.

Amaitzeko, Lourdes Verdes-Montenegro eta Julia Guiomar Niso zientzialarien profilak aurkeztuko dizkizuegu, Deustuko Unibertsitateak aurten ere antolatu duen «Ada Byron 2022» sariaren irabazleak. Sari horren helburua da teknologiaren munduan emakumeei ikusgarritasuna ematea eta arlo horretan egiten duten ekarpen garrantzitsuak goraiatzeko.

Office365eko zerbitzu berriak



Funtzionalitate asko eskaintzen dizkigu Office 365 bulegotika-paketeak eta bere online plataformak. Hala ere, funtzionalitate batzuek ez dituzte betetzen Eusko Jaurlaritzaren Sare Korporatiboaren erabiltzaileek behar dituzten beharrak. Datozen hilabeteetan, behar horiei erantzuteko asmoz zerbitzu berriak ezarriko dira.



¹ **Office365:** Office365 bulegotika-paketearen online aplikazioak erabiltzeko webgunea hauxe da: <https://portal.office.com>

2 019an, «Era proiektua»-aren barruan, Eusko Jaurlaritza Windows10 sistema eragilea eta Office365¹ bulegotika-paketea hedatzen hasi zen Sare Korporatiboko ordenagailuetan.



Ordutik hona aldaketa asko bizi izan ditugu; adibidez, eguneroko lana egiteko funtzionalitate berriak ditugu, lankideekin komunikatzeko aplikazio berriak ditugu ere (Teams bideokonferentzia-zerbitzua erabiliz), taldean lan egiteko eta dokumentuak partekatzeko modu erosoagoak ditugu (*Sharepoints/OneDriven* bidez), etab.



Bitarte horretan, Office365ek eskaintzen dituen aukeren artean ere zenbait gabezia antzeman dira, hala nola «*backup*»-aren zerbitzuan eta ezabatutako fitxategiak berreskuratzeko, besteak beste.

Ondorengo atalean, datozen hilabeteetan ezarriko diren funtzionalitate edo utilitate berriak aurkeztuko dizkizuegu:

- ▲ Babeskopien zerbitzu berria
- ▲ Partekatutako posta-elektronikoko kontuen erabilera
- ▲ Sare-unitateen edukien migrazioa
- ▲ OnPremise sharepointen migrazioa onlinera
- ▲ OneDrive erabiltzaile-profilaren gordailu gisa
- ▲ Prestakuntza-saioak

Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako sailek eta erakunde autonomoek behar dituzten benetako premiei zerbitzu osoagoa eta egokiagoa emateko asmoz, azken hilabeteotan EJJIEk hainbat aukera aztertu ditu gabezia horiek betetzeko.



BABESKOPIEN ZERBITZU BERRIA

Microsoften Office365 zerbitzuak datuak babesteko mekanismoak eskaintzen dituen arren, mekanismo horiek ez dira nahikotzat jo Eusko Jaurlaritzaren Elkarlan-O365

lankidetzaz-zerbitzuan zehaztutako baldintzak betetzeko.

Eusko Jaurlaritzan ezarritako O365 lizentziek informazioa berreskuratzeko aukera ematen dute hainbat «paperontzitatik»: posta

datu garrantzitsuak ezabatzen direnean. Kategoriatan sartzen dira, halaber, administratzaile «deszintzoen» akzioak, hau da, enpresa uzten duten eta irten aurretik enpresa kaltetzeko ekintza maltzurren bat egiten duten pertsonak.

Gaur egun, zerbitzu hori lizitazioan dago (esleipen-fasean, hain zuzen ere), eta urtea amaitu baino lehen zabaltzea espero da.



«Gaur egun 12,5 TB informazio baino gehiago migratu dira sareko unitateetatik SharepointOnline-ra»

elektronikorako (Exchange online) gehienez 14 eguneko atxikipen-aldia eskaintzen dute, eta 93 egun fitxategien zerbitzurako (Sharepoint Online, OneDrive eta Teams fitxategiak).

Sharepointeko zerbitzua Microsoften segurtasuneko kopia-sistema batek estaltzen badu ere, beharrezkotzat jo da zerbitzu korporatibo bat hedatzea, Office 365ek gaur egun estali ezin dituen egoerei erantzuteko, hala nola:

- ▲ «Tenant» bat «ransomware»² batekin infektatzen bada edo datuak eskuraezin bihurtzen dituen beste kalderen bat izaten bada, puntu espezifikoko batera itzuli ahal izatea.



- ▲ Arau- edo auditoretza-baldintzak betetzeko gaitasuna, hornitzaile bakar baten kontrolatik kanpo datu korporatibo garrantzitsuen kopia bat baino gehiago izateko.

- ▲ «Administratzaileen» akatsetatik errekupeatzeko gaitasuna, adibidez, errore baten ondorioz kontuak, postontziak edo



PARTEKATUTAKO POSTA-ELEKTRONIKOKO KONTUEN ERABILERA

Une honetan, partekatutako posta-kontuak («shared kontuak») erregularizatzeko lanean ari gara, legezko baldintzak (lizentziei buruzkoak) eta segurtasunarekin lotutako alderdiak betetzeko.

Postontzi partekatua postontzi mota bat da (kosturik gabea), eta beste postontzi edo erabiltzaile pertsonal batetik sartu behar da. Hau da, ez du sarbide-erabiltzailerik lotuta izan behar, eta are gutxiago erabiltzaile hori beste zerbitzu batzuetan saioa hasteko erabiltzen bada, hala nola

ordenagailu batean edo sharepoint batean sartzeko.

Segurtasun-arduradunek ezarritako irizpideei jarraituz, gaur egun oraindik aktibo



² **Ransomware:** informazio gehiago nahi izanez gero, «Ransomware: gorantz ari den mehatxua» izeneko artikulua kontsulta dezakezue, 2016ko martxoan Aurreira aldizkariaren 55. zenbakian argitaratua.



dauden postontzi partekatu horiei lotutako erabiltzaile guztiak desgaitzen ari dira. Horrelako postontzi batean erabiltzaile propio batekin sartu ahal izateko beharra justifikatua balego, lizentzia duen postontzi batera bihurtu beharko litzateke, eta horrek kostu bat du.




«Datozen hilabeteetan babeskopien zerbitzu berri bat ezarriko da»

³ **OnPremise:** «on premise» terminoak adierazten du software-programa bat enpresaren sistemetan instalatzen dela, hau da, enpresaren beraren instalazioetan edo ordenagailuetan, eta horrek zerbitzarien, komunikazioen eta abarren azpiegitura bat sortzera eta mantentzera behartzen du enpresa.

Kudeaketa-eredu horri kontrajarriko litzazikiok «cloud» edo «hodei» moduan funtzionatzen duten aplikazioak.

SARE-UNITATEEN EDUKIEN MIGRAZIOA

Gaur egun, sail edo erakunde autonomo batzuetako sare-unitateek oraindik duten edukia (artxiboak) Sharepoint Online-ra migratzen ari da. Ekimen honetan, eta Eusko Jaurlaritzako sailekin eta erakunde autonomoekin koordinatuta, sareko unitateetan biltegitratuta dauden dokumentuak (fitxategiak) SharepointOnline guneetara migratzen dira. Lehen fase honetan, EZ da erabat desagertzen fitxategi-zerbitzu



tradizionala, dokumentazio guztia ezin baita Sharepointera «mugitu». Adibidez, badaude lankidetzakasuak, hala nola Access datu-base

bat partekatzen denean, Sharepointetik EZIN direnak eskaini; beraz, aldez aurreko azterketa



bat egin behar da, zer eta nola mugitu daitekeen jakiteko.

Gaur egun 12,5 TB informazio baino gehiago migratu dira dagoeneko sareko unitateetatik SharepointOnline-ra.



ONPREMISE SHAREPOINTEN MIGRAZIOA ONLINERA

Aldi berean, «SharePoint OnPremise»³ lankidetzak-guneen zerbitzua «SharePoint Online» zerbitzu berrira migratzen ari da. Azken fase honetan, gaur egun 15 leku baino ez dira geratzen migratzeko. Helburua da OnPremise azpiegitura urte honen amaieran «deshornitu» ahal izatea.

ONEDRIVE ERABILTZAILA-PROFILAREN GORDAILU GISA

Datozen hilabeteetan, ordenagailu korporatiboen fitxategiak eta dokumentazioa biltegitratzearen arazoari ere helduko zaio.

Azken helburua da gure ordenagailuetan ez gordetzea inolako informaziorik (segurtasun kontuengatik eta erabilgarritasunagatik).

Hori saihesteko, OneDrive zerbitzua (Office365 eskaintzen duena) zerbitzu lehenetsi gisa erabiliko da, erabiltzailearen profilari lotutako informazioa gordetzeko («Nire dokumentuak»...).



PRESTAKUNTZA-SAIOAK

Pertsonen formazioa funtsezko elementuetako bat da horrelako proiektuetan. Horregatik, laster Office365 (Sharepoint, OneDrive...) ingurunearekin lotutako informazio-saioak eskainiko dira, alde batetik, bere garaian eman ziren ikastaroen ezagutzak eguneratzeko eta, bestetik, O365 zerbitzuaren funtzionalitate berriak ezagutzeko. □



LAGUNTZA GEHIAGO...

Gogorarazten dizuegu Jakina intranetean («Prestakuntza» atalaren barruan) «Windows 10 eta Office 365» izeneko atal bat dagoela, eta bertan laguntza-dokumentu batzuk eskuragarri dituzuela, hala nola:

- ▲ Bideoak. Gaur egun, 2 minutuko 50 bideo baino gehiago daude, Windows sistema eragileak eskaintzen dituen funtzionalitate desberdinei buruzkoak, eta baita Word, Excel, Power-Point eta Outlook bulegotika-aplikazioei buruzkoak ere.



- ▲ Eskuliburuak edo gidak. Dokumentu horiek «prestakuntza-pilulak» dira, lanpostu informatikoen migrazioa egiteko moduari buruzko informazioa dutenak, etab.

Office365ekin zerikusia duen gorabeheraren bat izanez gero, Sare Korporatiboaren erabiltzaileek CAU Zerbitzuari jakinarazi diezaioke (440 telefono-zenbakia), edo zuzenean jarri harremanetan Office365aren euskarriarekin, mezu bat bidaliz o365era@ejie.eus helbide elektronikora («EJIE, Gestion Office365» postontzia).

Era berean, azken hilabeteotan Aurrera⁴ aldizkari honetan bertan argitaratu diren artikuluak kontsulta ditzakezue.



⁴ Aurrera aldizkaria:

Windows10 eta Office365erako migrazioari buruz informazio gehiago nahi izanez gero, honako artikulua hauek kontsulta ditzakezue:

- ▲ «Windows10 eta Office365 sistemei buruzko aholkuak: sarrera» (Aurrera aldizkaria, 68. zk., 2019ko ekaina)
- ▲ «Windows10 eta Office365 sistemei buruzko aholkuak: partekatzea, koedizioa eta bertsioen kontrola» (Aurrera aldizkaria, 69. zk., 2019ko iraila)
- ▲ «Windows10 eta Office365 sistemei buruzko aholkuak: birtualizazioa eta aplikazio zaharkituak» (Aurrera aldizkaria, 70. zk., 2019ko abendua)
- ▲ «Windows10 eta Office365 sistemei buruzko aholkuak: prestakuntza-pilulak eta azalpen-bideoak» (Aurrera aldizkaria, 71. zk., 2020ko martxoa)

GureSeK: segurtasun korporatiboa hobetzen



Informazio-sistema korporatiboen segurtasuna oso gai garrantzitsua da oraindik edozein erakunderentzat, baita administrazio publikoentzat ere. Eusko Jaurlaritzak, EJIEn bitartez, lanean jarraitzen du une honetan hain indarrean dauden zibererasoak saihesteko.



⁵ Segurtasun neurriak:

informazio gehiago nahi izanez gero, artikulu hauek kontsulta ditzakezue:

- ▲ «Eusko Jaurlaritzaren eta haren sektore publikoaren zibersegurtasun-ereduaren bilakaera», 72. zenbakian argitaratua (2020ko ekaina).
- ▲ «Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Plan Zuzentzailea», Aurera aldizkariaren 80. zenbakian argitaratua (2022ko ekaina)

J oan den ekainaren 22an, **GureSeK-eko Batzorde Teknikoaren** hamaikagarren ohiko bilkura egin zen, talde honek Eusko Jaurlaritzaren informazio-sistema korporatiboen aurkako erasoak saihesteko beharrezkoak diren **segurtasun-neurriak**⁵ zehaztu, ezarri eta gainbegiratzeko ardura du.

GureSeK



Azken bilera horretan, euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeen ordezkari izendatutako pertsonak izan ziren, eta gaurkotasuneko hainbat gai jorratu ziren.

Hona hemen bileran aipatu ziren gai garrantzitsuenen laburpena:

- ▲ Internet Explorer II desagertzea
- ▲ Administrazioaren eredu berria
- ▲ EDR sistema
- ▲ Zibersegurtasunaren arloko prestakuntza

Ondorengo ataletan, adierazitako gaiak azaldu eta aztertuko ditugu.



INTERNET EXPLORER II DESAGERTZEA

Jakinarazi zutenez, ekainaren 30ean Internet Explorer II nabigatzailea Windowsen bertsio batzuekin bateragarria izateari utzi zion.

Microsoftek iragarri zuen bere ezabapena ekaineko segurtasun-eguneratzean txertatuta zegoela, eta partxe hori instalatzeko unean gauzatuko zela.

Azken hilabeteetan, Eusko Jaurlaritzako informatikariek eta EJIeko teknikariek beharrezko probak egin dituzte nabigatzaile hori aldatzeak Eusko Jaurlaritzaren aplikazio korporatiboetan izan lezakeen eragina ezagutzeko. Planifikatutako proba guztiak bete ezin izan direnez, ekaineko eguneratzea atzeratu behar izan da.

Baliozkotze-prozesua amaitzeko asmoz, hainbat ataza egin behar dira EJIeko Laguntza



Teknikoen arduradunen eta sail eta erakunde autonomoen artean, sailtako aplikazioen erabilera eta funtzionamendua/portaera Microsoften Edge nabigatzailearekin bateragarri direla egiaztatzen da.

Beraz, bileran esan bezala, baliozkotze-prozesua amaitutakoan, Internet Explorer II nabigatzailea behin betiko desagertuko da gure ordenagailu korporatiboetatik.



ADMINISTRATZAILEEN EREDU BERRIA

Azaldu zen beste gai garrantzitsu bat erabiltzaileen baimenak esleitzearekin lotuta dago. Kasu honetan, erabiltzaileak kudeatzeko eredu berri bat diseinatu da, batez ere «erabiltzaile pribilegiatu» kudeaketan oinarritua; horri esker, ordenagailuen administrazio-baimenen esleipena arinduko da, eta, aldi berean, segurtasun-geruza berriak gehituko dira.

Eredu berri honen gakoetakoa bat da faktore anitzeko autentifikazio-soluzio bat erabiltzea⁶ sistema korporatibo nagusietara sartzekoan, pixkanaka-pixkanaka gainerako sistemetara hedatuko dena.

Faktore anitzeko autentifikazio sistema erabiltzeak ondorengo abantailak ditu:

- ▲ Gertakari baten ondorioz, kontu korporatiboren bat konprometitu bada arriskuari eusteko gai izatea

- ▲ Segurtasun Eskema Nazionalak⁷ (SEN) eskatzen duen baldintza betetzea; besteak beste, aplikazioetara sartzeko faktore anitzeko sistema bat ezartzeko betebeharra ezartzen du.



Eredu berri hori ezartzeko oztopo nagusia da Eusko Jaurlaritzaren ingurune teknologikoa osatzen duten informazio-sistemak ez direla oso homogeneoak. Gaur egun, alde batetik, «legacy» sistemak ditugu (zaharkituta geratu dira eta berariazko mantentze-lanak behar dituzte), eta, beste alde batetik, BATERA sistemak daude (teknologia berriak erabiltzen ditu).

EDR SISTEMA

Kontrol- eta segurtasun-sistemekin jarraituz, GureSeK-ren bileran jakinarazi zen ere EDR bat ezarri dela, hau da, lanpostu korporatiboak monitorizatzeaz arduratzen den plataforma bat.

Sistema horri esker, segurtasun-geruza gehigarri bat ematen zaie informazio-sistemei, eta segurtasun-gaitasunak gehitzen zaizkie lehendik ezarrita zeuden elementuei (adibidez, firewall-ak, antibirusak, etab.).



Gaur egun, honako ekintza hauek egiten ari dira:

- ▲ Alde batetik, pertsonen abisua bidaltzen hasi dira EDRak Sare Korporatibora konektatzen



⁶ Faktore anitzeko autentifikazioa:

informazio gehiago nahi izanez gero, «Nortasun seguruaren kudeaketa (okta)» izeneko artikulua kontsulta dezakezue, Aurrera aldizkariaren 79. zenbakian argitaratua (2022ko martxoa).

⁷ Segurtasun Eskema Nazionala (SEN):

informazio gehiago nahi izanez gero, artikulua hauek kontsulta ditzakezue:

- ▲ «Prestakuntza, Segurtasunaren Eskema Nazionalaren ikuspegitik» (Aurrera aldizkaria, 60. zk., 2017ko ekaina)
- ▲ «Segurtasunaren Eskema Nazionalaren esparruko arriskuen analisia» (Aurrera aldizkaria, 68. zk., 2019ko ekaina)
- ▲ «Eusko Jaurlaritzaren SEN ziurtagiria» (Aurrera aldizkaria, 78. zk., 2021eko abendua)

diren ekipo edo unitate erauzgarrietan sistema maltzurak edo susmagarriak detektatu dituenen.



⁸ **Malware:** programa edo software maltzur mota bat da, eta sistema informatiko batean ekintza kaltegarriak nahita (software akastuna ez bezala) eta erabiltzailearen ezagutzarik gabe egiten dituena.

Jarduera maltzur horien adibide tipikoak honako hauek dira: informazioa lapurtzea (adibidez, «Troiarren» bidez), sistema informatikoa kaltetzea edo gaizki funtzionatzea, kalte ekonomikoak eragitea, sistema informatikoen datuen jabeei xantaia egitea (adibidez, «ransomware» batekin), baimenik ez duten pertsoneri sartzeko uztea, eragozpenak eragitea edo jarduera horietako batzuk konbinatzea.

«Malware» terminoa 1990ean sortu baino lehen, «software gaiztoa» «birus informatikoa» termino generikoan biltzen zen.

[Iturria: Wikipedia]



- ▲ Eta, beste alde batetik, sail/erakunde autonomo bakoitzeko informatika-arduradunek parte hartzeko prozedura bat zehazten ari dira, erabiltzailearekin batera maltzurtzat jotako dokumentuak ezabatzea kudea dezaten. Kudeaketa hori errazteko, sail bakoitzean jarduteko gaitasuna duten kontaktu teknikoaren zerrenda prestatzen ari da (ezabatzea, desinstalatzea, etab.).

Adobe softwarearen bertsioak

Ordenagailuen bilaketa-sistemekin lotuta, hainbat PC korporatibotan hainbat programaren kopia ez-ofizialak instalatuta daudela ikusi da, erregularizatu gabe egon daitezkeenak, eta segurtasun-arazoak eta arauak betetzeko arazoak sor ditzaketenak. Horien guztien artean, Adobe Acrobat aplikazioari lotutako programak (bertsio desberdinetan) eta harekin lotutako beste produktu batzuk azpimarra ditzakegu.

Joan den uztailaren 6an bilera bat antolatu zen sailtako eta erakunde autonomoetako informatika-arduradunekin, programa horien egoera azaltzeko eta eguneratu gabe dauden edo ofizialak ez diren kopia horiek ezabatzeko irtenbiderik onena aztertzeko.




[Ikus «Adobe softwarearen bertsioak» koadroa]

«Kontzientziazio-lanarekin jarraitu behar da zibererasoak eta horien ondorioak saihesteko»

ZIBERSEGURTASUNAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA

Erabiltzaileen prestakuntza funtsezkoa da zibererasoak saihesteko edo, gutxienez, horien ondorioak gutxitzeko.


Horregatik, Eusko Jaurlaritzak eta EJIIEk garrantzi handia ematen diote atal horri. Izan ere, 2021aren amaieran zibersegurtasunean kontzientziatzeko/trebatzeko egindako saioen



Software «ez-ofizial» bat gure ordenagailuetan instalatuta izateak dakarren segurtasun-arriskua ezabatzea da helburua, «malware»⁸ mota guztietarako sarrera izan baitaiteke.


Hori dela eta, EJIIEk sail/erakunde autonomoekin lanean jarraituko du datozen asteetan, lizentzia iraungi zaien kopia guztiak eguneratzeko edo, behar izanez gero, jatorrizko programaren antzeko funtzionalitateak eskaintzen dituzten beste produktuekin ordezkatzeko.

ondoren, «*phishing*»⁹ kanpaina berri bat abiarazi zen (iruzurrezko posta elektronikoa), jendeak mezu «susmagarrien» aurrean alerta handiagoa duen egiaztatzeko.



Azken proba hori egin ondoren, ariketaren emaitza hauxe izan zen: bidalitako «posta-faltsua» jaso zuten 1.000 pertsonetatik 450 baino gehiago tranpan erori ziren eta posta elektronikoan agertzen zen iruzurrezko esteka sakatu zuten... Beraz, azken proba horren ondorioa da etengabeko prestakuntza gehiago behar dela zibersegurtasun-mehatxuen aurrean gure indarra areagotzeko.

Kanpoko mehatxuez gain, komeni da jakitea



barneko erabiltzaile askoren eguneroko lanean ere arrisku asko daudela. Adibide gisa, adierazi behar da ELZ/CAU zerbitzuak eskaera ugari jasotzen jarraitzen duela oraindik ere erabiltzaileen aldetik arriskuak izan daitezkeenak: beraien ordenagailu korporatiboko antibirusa desgaitzea eskatzen dute, pasahitza aldizka aldatu behar izatea kexatzen dira,



«Segurtasun-eredu berriaren gakoetako bat da faktore anitzeko autentifikazio-soluzio bat erabiltzea aplikazio informatikoetara sartzeko»



lizentziarik gabeko softwarea instalatzeko eskaerak egiten dituzte, etab. Horregatik, argi dago **kontzientziazio**-lanean eragitea beharrezkoa dela oraindik ere.

Zibersegurtasuneko prestakuntza laguntzeko, indartzeko eta aurrera egiteko asmoz, une honetan online prestakuntzako hainbat plataforma aztertzen ari dira, prestakuntza ziklikoak eta pertsona edo profil bakoitzaren beharretara egokitutako eduki eguneratuak eskaini ahal izateko, ariketa praktikoak prestakuntza- edo informazio-mezuekin konbinatuz.

Azken helburua zibersegurtasunaren inguruko kontzientziazio-programak ahalik eta ondoen kudeatzea da. Horrela, Eusko Jaurlaritzaren informazio-sistemetan pertsonen jatorriko «*zibearriskua*» prebenitzen da, horretarako beharrezkoa da erabiltzaile guztiak segurtasun-sistemaren parte izatea.

Ez dezagun ahaztu katearen katebegirik ahulena pertsonak direla.

Kontzientziazio horrek denbora asko eskatzen du, bai segurtasunaren arduradunen aldetik (erabiltzaileak); horregatik, beharrezkoa da mikro «*e-learning*»¹⁰ tresnak jartzea, ezagutza horien hedapena automatizatzeko eta ikaskuntza errazteko. □

⁹ **Phishing:** informazio gehiago nahi izanez gero, «*Interneteko arrisku zaharrak: phishing-a edo identitatearen ordezipena*» izeneko artikulua kontsulta dezakezue, Aurrera aldizkariaren 66. zenbakian argitaratua (2018ko abendua).

¹⁰ **e-Learning:** informazio gehiago nahi izanez gero, Aurrera aldizkariaren 9. zenbakian (2002ko iraila) argitaratutako «*e-Learning*» izeneko artikulua kontsulta dezakezue.



ALBOAN

EJIEk zuzendari nagusi berria izendatu du

Irailaren 14an, EJIEko Administrazio Kontseiluak onartu zuen Asier Sáez de Vicuña Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SAKo [EJIE] zuzendari nagusi izendatzea.

Arduradun berria sektorean esperientzia luzea duen profesional bat da, eta «etxeko» pertsona bat da, bere ibilbide profesionalaren zati handi bat erakunde publikoko hainbat arlotan garatu baitu.



Asier Sáez de Vicuña

aplikazioen mantentzeaz eta laguntza teknikoaz arduratu zen, eta baita Ordainketa-Pasabidea eta Elkarreragingarritasun-sistemaren zerbitzuez ere.

2021ean Gobernu Digitalaren arloko zuzendaritza hartu zuen bere gain, EJIE sozietate publikoaren barruan bere erantzukizunen katalogoa are gehiago handituz.

Zuzendari nagusi berriak Alex Etxeberria ordezkatu du bere karguan. 2013an kargua hartu zuen eta lan-arro berri bati ekitea erabaki du.

IBILBIDE PROFESIONALA

Asier Sáez de Vicuña (Vitoria-Gasteiz, 1976) ezagutza zabala du arlo teknologikoari buruz, eta oso ondo ezagutzen ditu EJIEren dinamikak eta helburuak. Gaur egun, EJIEk Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) zerbitzuak eskaintzen dizkie euskal sektore publikoko erakundeei. Hainbat urtez telefono-operadore baten merkatu-eragiketen arloan aritu ondoren, 2006an EJIEEn sartu zen, eta Eusko Jaurlaritzaren hainbat esparrutako proiektu-buru arduradun gisa aritu da: elkarreragingarritasuna, izapidetze eta administrazio elektronikoa, dokumentuen eta artxiboen kudeaketa, besteak beste.

Ondoren, 2016an, administrazio elektronikoko zuzendari tekniko izendatu zuten, eta Herri Administrazio Sailaren, Baliabide Orokorraren eta Lehendakaritzaren

AGURRA ETA ONGIETORRIA

Informazio eta Komunikazio Teknologien Zuzendaritzatik, ohar honen bidez, eskerrak eman nahi dizkiogu Alex Etxeberriari, 9 urte hauetan EJIEk Eusko Jaurlaritzako sailei eta erakunde autonomoei nahiz euskal gizarte osoari egunez egun eskaintzen dizkien



Eusko Jaurlaritzaren
Informatika Elkarte

Sociedad Informática
del Gobierno Vasco

zerbitzuak hobetzeko egindako lanagatik, eta zorte ona opa diogu kargu berrian.

Kasu horretan, hemendik aurrera «Atlantic Data Infrastructure (ADI)»

erakundeak zuzendari nagusiaren lanpostua

beteko du. Erakunde berri horretan, Eusko Jaurlaritzak %15eko partaidetza du, eta lehen



Alex Etxeberria

mailako Datu Zentro bihurtzea du helburu, eremu atlantikoko enpresen eta erakundeen eraldaketa digitala bultzatzeko. Azpiegitura teknologiko berri horri esker, enpresek eta erakundeek «informazioa hodeian biltegitratzeko gaitasun handia izango dute, segurtasun eta hurbiltasun handieneko irizpideei jarraituz». Zentro horren lehen instalazioa Bizkaiko Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Parke Teknologikoan egongo da, Abanto-Zierbenako udalerrian, hain zuzen ere.


Amaitzeko, ongietorria eman nahi diogu EJI Eko zuzendari nagusi berriari, Asier Saéz de Vicuña, eta zorte ona opa nahi diogu ibilbide berri honetan. □



EJIE, S.A.

EJIE 1982ko apirilaren 20an sortu zen, otsailaren 1eko 60/1982 Dekretuarekin bat etorriz. Dekretu horren bidez, EJIE «Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte - Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A.» izenarekin eratzeko baimena eman zen, bazkide bakar batekin: Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta EJI Eren arteko harremanak martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuak ezartzen ditu.



EJI Eren estatutuak, bestalde, otsailaren 3ko 20/2009 Dekretuan jasota daude.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, EJI E



sail eta erakunde autonomoei esleitutako eduki informatikoko ataza guztiak egin ditzake.

Administrazioak kudeaketa orokorreko enkargu bat egiten dio EJI Eri, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzak izapidetzen duena, eta bertan zehazten dira ekonomia- eta finantza-harremanak, kudeaketa eta lortu beharreko helburuen eta emaitzen lorpena.

EJI Ek Gasteizen du egoitza nagusia, eta Eusko Jaurlaritzaren **Organo Kudeatzaile Teknologikoa** da bere egitekoa, zerbitzu publikoen digitalizazioa errazteko eta horien euskarri diren informazio-sistemen kalitatea, segurtasuna eta jarraitutasuna bermatzeko. Horretarako, 223 langilek ditu (93 emakume eta 130 gizon) [2021eko abenduaren 31ko datuen arabera].



EJI Eko webgunea:


[https://
www.ejie.eus](https://www.ejie.eus)

IXTEKO

Googleren bilatzaileak 25 urte bete ditu

Larry Page eta Sergey Brin ikasleek 1996ko urtarrilean eman zituzten lehen pausoak etorkizunean Google izango zena eraikitzeke, unibertsitate-proiektu gisa, Stanfordeko Unibertsitatean (AEB) Konputazio Zientzietako graduondokoa prestatzen ari zirenean.

Garai hartan, bilatzailearen jatorrizko izena «BackRub» zen, baina 1997an izena aldatzea erabaki zuten eta «Google» izena jarri zioten, matematikari «gúgol» terminoan oinarrituta. Izen hori 10^{100} da, hau da, 1 zenbakia eta jarraian 100 zero, eta horrek ia kopuru mugagabea adierazten du, eta garai hartan webean zabaltzen hasi zen informazio kopuru handiari egin nahi zion erreferentzia.



1998ko irailaren 4an, Page eta Brinek sortu zuten Google Inc. konpainia (gaur egun Alphabet, Inc.), eta urte horretako irailaren 27an estreinatu zuten Interneten bere bilatzailea. Une hartan zerbitzariz betetako armairu bat (80 bat prozesadore) eta HP bi *router* zituzten. 1998. urtearen amaieran, Googleren bilatzaileak 60 milioi orrialde lotzen zituen.

Bilatzaile berriak AltaVista gainditu zuen, garai hartako bilatzailearik ezagunena, 1995ean sortua.

Informazio gehiago:



<https://www.google.es>

<https://es.wikipedia.org/wiki/Google>

PROTAGONISTAK

Ada Byron Saria 2022, Lourdes Verdes-Montenegro eta Julia Guiomar Niso

Lourdes Verdes-Montenegro granadarrak irabazi du Deustuko Unibertsitateak antolatutako «Emakume Teknologoentzako Ada Byron Saria»-ren 9. edizioa, eta Julia Guiomar Niso kataluniarrak, berriz, «Ada Byron gazte saria» irabazi du.

Lourdes Verdes-Montenegro Zientzia Fisikoetan doktoorea da Granadako Unibertsitatean. Bere karrera galaxien eboluzioaren maiztasun anitzeko azterketan zentratuta dago. 1998an CSICen plaza bat lortu zuen. 2003an, galaxia isolatuen lagin bat eraikitzeke eta karakterizatzeko beharra ikusi zuen, eta horretarako AMIGA taldea osatu zuen (erderaz, «Análisis del Medio Interestelar en Galaxias Aisladas»; euskaraz, «izarrarteko ingurunearen analisisa galaxia isolatuetan»).

2011n, «Square Kilometre Array» (SKA) eraikitzeke proiektuan parte hartu zuen, munduko irrati-teleskopio handiena.

Bestalde, Guiomar Niso Telekomunikazio Ingeniaritzan lizentziaduna eta Ingeniaritza Biomedikoan doktoorea da Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan. Egonaldiak egin ditu Max Planck Institute for Brain Research edo McGill Unibertsitateko Montrealgo Institutu Neurologikoan, besteak beste. Bere ikerketak neuroirudia erabiltzen du garuneko egoera osasuntsuak aztertzeke eta gaixotasun ezberdinetan nola eboluzionatzen duen ikusteko, hala nola epilepsia, Alzheimer gaixotasuna edo itsutasuna. Niso doktoreak zientzia irekia bultzatzeko hainbat ekimen gidatu ditu: aitzindaria izan da datu irekien biltegiak eraikitzen («Open MEG Archives» [OMEGA]), garuneko seinaleak aztertzeke software irekia erabiltzen (Brainlife, Brainstorm, Hermes) eta estandar irekiak definitzen («Brain Imaging Data Structure» [BIDS]). Nazioarteko hainbat sari jaso ditu, hala nola AXA Research Fund erakundeak 2017an emandakoa.



Lourdes Verdes-Montenegro Julia Guiomar Niso Galán

Informazio gehiago:
<https://www.deusto.es>

